

GOBERNAMENDU ONERAKO ETA GARDENTASUNERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Leyre Vitorica Donezar

Bilbon jaio zen 1983an.

Prestakuntza akademikoa:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean (Bilbo), finantzen espezialitatean. Azken maila Tilburg-eko Unibertsitatean egin zuen (Herbehereak). Zuzendaritza-trebetasunetako masterra egin zuen Deustuko Merkataritza Unibertsitatean.

Lan-esperientzia:

Deloitte-n hasi zen lanean, munduan lege-aholkularitza eta -auditoretzan diharduten enpresa handienetako batean. Entitate horretan sektore publikoko estrategien eta eragiketen arloa landu zuen. Hainbat proiektutan aritu da *experienced senior* aholkulari modura aholkuak ematen sektore publikoko erakundeei eta entitateei (Europakoak, estatukoak, autonomikoak, foralak eta tokikoak): aholkularitza estrategikoa eta bideragarritasun-planak; antolamenduaren eraginkortasunaren hobekuntza (integrazio-prozesuak, antolamendu-ereduak, prozesuak); lehiakortasun-planak; eragina ebaluatzeko ereduak.

2015ean Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernu-talde berrian sartu zen Modernizaziorako, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Kabinetearen aholkulari aritzeko; egiteko horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernamendu onerako estrategia zehazteko eta hedatzeko aholkuak eman zituen eta gardentasunaren eta datu irekien arloan araugintzako tresnak eta kudeaketa, eraginkortasuna eta politika korporatiboak hobetzeko zeharkako tresnak prestatzen lagundu zuen.

2018tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusi jardun du.

HIZKUNTZAK

Euskara:- Maila handia, ahoz zein idatziz. Tituluak: Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

Ingelesa: Maila handia, ahoz zein idatziz. Tituluak: English for Commerce – Highest Level (London Chamber of Commerce) First Certificate of Cambridge (University of Cambridge)

Frantsesa: Maila handia ahoz, eta ertaina idatziz. Tituluak: A4 Pratique du fonctionnement de la langue (Comisión Nationale du DELF et du DALF). Gaur egungo baliokidea: B1 maila.